

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Alde batetik, gure webgunea eta aplikazioa kudeatzea guztiz beharrezkoa izango da. Honekin lotuta, sortuko ditugun sare sozialak ere ondo kudeatu beharko ditugu. Hauek bezeroekin harremanetan egoten laguntzen digutenez, baita establezimenduekin ere, oso garrantzitsua da kudeaketa ondo jardutea. Ondorioz, beharrezkoa izango da hauek dituzten arazoak azkar identifikatzea eta konpontzea.

Beste aldetik, gure proiektuaren oinarria establezimenduekin kontaktuan egotea da. Beraz, funtsezkoa izango da honetan jardun egingo duten langileak kontratatzea. Hauen helburua establezimendu berriak erakartzea baita gurekin lan egiten dituztenen kezkak argitzea izango da. Oinarrizkoa da establezimenduekin harreman estua lortzea.

Bezeroekin erlazionatutako beste jarduera bat jatetxeen menuen azterketa izango da hau, hauetan alergenak edo osagaiak identifikatuz, aholkatuz eta aukera berriak eskainiz. Era berean, gure kurtsoak izango ditugu.



Azkenik, km0-arekin konpromisua hartuz eta hau bultzatuz, bitartekari gisa izango gara establezimenduen eta bertako (hemengo) ekoizleen artean. Hortaz, bai ikerketa lana (bai jatetxe berriak bilatuz, bai ekoizle ekologiko eta lokalak bilatuz) zein bata bestearekin kontaktuan jartzea egin beharko dugu.